

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 210. zkia. 2013ko martxoa



**Iñaki Arrizabalaga,
Euskadiko txapelduna**

ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



ODONTOLOGIA OROKORRA

ORTODONTZIA

Invisalign < BERRITASUNA
Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < BERRITASUNA
Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < BERRITASUNA

PERIODONCIA

Diagnosi digital periodontala < BERRITASUNA
Anlisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoak < BERRITASUNA
Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < BERRITASUNA
LASER diodoa
Mentuat hortzoietan

AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak
Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin
Barneko hortzak ateratzea

INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak
Hezur-birsortzea biomaterial bidez < BERRITASUNA
Hortzoi-birsortzea
Inplantologia transzigomatikoa < BERRITASUNA
Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < BERRITASUNA

PROTESI FINKOAK

Metalezko koroa libreak < BERRITASUNA
Zirkoniozko koroa puruak < BERRITASUNA
CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < BERRITASUNA
Karillak

MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

ODONTOPIEDIATRIA (PADI)

ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

MUTUA ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD, CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, OCASO, AVANTSALUD, PADI...

ZERBITZU BERRIAK

ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

LARRIALDIETARAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA

24 orduz
GALDETU



GALDETU 2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan irakasleak gara.
Ospea duen zentroa gara.

ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:
Pazientea jaso eta etxera itzuli
GALDETU



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Promozio bereziak 2013ko maiatzaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

%20 Deskontua
hortz-
inplanteetan*

*Soilik hortz-inplanteetarako

%10 Deskontua
larunbatetan
egindako
tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa
Hortzetarako arkatx zuritzailea 525 €
Higienea
BESTELAKO PROMOZIOAK: GALDETU

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Leire Elustondo, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Edurne Poves.

LAGUNTZAILEAK:

Eneritz Aranburu, Amaia Arriaga, Naike Ereñozaga, Begoña Fernández, Juan Fernández, Zaida Fernández, Antonio Hernández 'Cuco', Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Alicia Lorenzo, Pello Mugarza eta Valentín Mugarza .

ARGAZKIAK:

Igone Amesti, Eneritz Aranburu, Iñaki Arrizabalaga, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Valentín Mugarza, Edurne Poves eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Olatz Loiola, Nora Mateos eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.360 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

AMILOTXA

Herrerillo común. *Parus caeruleus*



Mallabian zein Ermuan ikusterik badago eta ondo ikusi ere: urdinak, berdeak eta horiak nagusi dira bere lumatzen, bizitasuna eta ikusgarritasuna ematen dioten kolore distiratsu horiekin janzten du-eta bere gorputza. Apatxak ere urdinxkak ditu, aniluretan beratzen ipini izan balitu bezala. Bere itxura dotorea pixkat gaiztotzeko, luma beltzez osatutako begietako antifaza. Arboladiak dira bere habitata; pago edo haritzetan berez irteten diren zuloetan atontzen du habia ere. Uda aldean baina errekondoetako ura bilatzen du, edateko zein bere lumen garbiketa egiteko. Txita mordoia izaten du; bere gorputzarekin ezin dituen guztiak estali, goroldio eta luma gozoekin konpentsatzen du berotasuna eta zuhaitzen azalaren arrakaletan bilatutako kokotxoekin elikatu.

Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	BOTEPRONTOAN 15
Mihaela Zenik, Errumania	Jose Antonio Arronategi
ELKARRIZKETA5-7	KIROLZALE 16-17
Emakumearen Udal Kontseilua	Iñaki Arrizabalaga eta Duatloia Ermuan
MALLABIAN ZER?8-9	IRITZIA 18
Felipe Zelaieta	App madarikatua!
ERREPORTAJEA 10-11	SALEROSKETAK 19
Berbalagun	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN..... 12-13	ANTZINAKOAK.....20
III Zuhaitz Eguna	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 14	KALEKO INKESTA 21
Sagra Escudero gozogilea	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritzia
	AGENDA 22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Mihaela Zenik

Timisoaratik etorri zen orain dela 5 urte. Errumania utzi eta Elgetzu baserrian bizi da 46 urteko emakume alai eta atsegin hau. Seme baten ama, euskal abeslariak eta pilota ditu gustuko, Euskal Herrian maitasuna eta bere destinoa aurkitu omen ditu.

- Nolakoa zen zure bizitza Errumanian?

Hotel batean garbiketako langile ibili nintzen Errumanian baina bizimodu hobea nahi nuen. Alemaniara edo hona etortzeko aukera nuen, azkenean hona etorri nintzen gaztetako kanta bat zela eta 'Golfo de Bizkaia' kantatzen zuen akordeoilari batek, superra zen kanta hura. Nire betiko bizilagun bat, Tiana Tanase bizi zen hemen eta hau aukeratu nuen. Mallabian bizimodu hobea eta lasaitasuna topatu dut.

- Aldaketa erraza izan zen?

Ez zen zaila izan, gauza berriak deskubritu nituen eta pentsamolde irekia duzunean errazagoa da, oporrak bezala hartzen dituzu, hiritik baserrira. Bilbo moduko hiri handi batean hazi nintzen eta beti geneukan oiloren bat, oilaskoak, katuak... Beti gustatu izan zaizkit animaliak eta natura. Aspalditik ezagutzen dut ardien usaina.

- Zer da gehien harritu zaituena?

Lur hauek iritsi nintzenean Arrate



irratian Erramun Martikorenaren ahotza deskubritu nuen, Benito Lertxundi, Kepa Junkera..., musika terapia izatera iritsi daiteke batzuentzat. Euskal pilotak ere txundituta utzi ninduen, Oinatz Bengoetxea ikustea gustatzen zait bereziki. Saskibaloia ere jarraitzen dut, Caja Laboral taldea, aspaldian ondoegi ere ez dabilzan arren. Animoak bidaltzen dizkiet telepatikoki. Bestalde, jaiek harritu ninduten, nola dibertitzen diren, bai beraien artean eta nirekin, ez nintzen baztertuta sentitu. Ez zion axola inor ez ezagutzeak eta beraiekin egiten nuen dantzan. Ez da talde zurruna euskaldunena, oso gustura egoten naiz jendearekin.

- Zer irabazi duzu? Zer galdu?

Galdu, ez dut galdu, Errumanian daukat ama, familia, lagunak, baina hemen ere baditut lagunak. Faltan botatzen dira baina internet bidez hitz

egiten dut beraiekin, semea ere handago nire ama zaintzen, ni alaba bakarra bainaiz.

- Errumaniara bueltatzen zara?

Bai, oporretan joaten naiz urtero ahal badut, baina motz egiten zaizkit oporrak. Bakarrik joaten naiz, Juanlok ez du nahi izaten etortzerik.

- Hemen geratzeko asmoa duzu?

Bai, hemen geratzeko asmoa dut, hau da nire destinoa, hala sentitzen dut eta ez naiz damutzen, oso jende ona topatu dut bertan.

- Eta euskara ikasteko asmorik baduzu?

Gaztelera liburuxkekin eta telebistarekin ikasi dut, baina euskara ikasteko euskaltegira joaten naiz. Lau urte daramatzat eta hitz egiten dut pixkat, kosta egiten zaidan arren, baina banabil apurka-apurka...

Eneritz Aranburu

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA

1968tik Ermua euskalduntzen



Emakumearen Udal Kontseilua:

**“Hasierako urgentziei erantzuna eman ostean,
esparru berrietan egin behar dugu lana”**

Euskal Herriko lehen Emakumeen Topalekua Izelaieta kalean zabaldu zen, duela 10 urte. Ehunka emakumeren historiek osatu dute zentro honen ibilbidea eta martxoaren 6an egindako ospakizunean agerian geratu zen herritarrek, langileek eta politikariek Etxeak egindako lana oso aintzat hartzen dutela. Ermua herri aitzindaria izan da berdintasunaren alorrean eta Emakumearen Udal Kontseiluko kideekin batera, garai ezberdinetako une garrantzitsuenen errepasoa egin dugu.

- *Emakumearen Topalekua sortu aurretik, emakumeen mugimendurik bazegoen herrian?*

Bai, Ermuko emakumeak betidanik mobilizatu izan gara gure aldarrikapenak egiteko: Emakumeen Sustapenerako Zentroa zabaltzeko, Familia-Plangintzako Zentroa martxan ipintzeko, errepide nazionalako semaforoak eskatzeko... Ermuan elkarte asko dago eta, oso ondo funtzionatu izan dute beti. Gehienak emakumeek osatutakoak dira.

- *Nola antolatzen zineten?*

Emakumearen Udal Kontseilua 1991ean sortu zen. Ordura arte, talde ezberdinak zeuden eta gure artean koordinatu egiten ginen elkarrekin lana egiteko, tratu txarrak jasaten zituzten emakumeei arreta emateko, 'babes-etxea' kudeatzeko, Udaletxean aldarrikapenak egiteko... Baina konturatzen ginen gure ekimenak gure inguruko jendeari bakarrik heltzen zitzaizkiela. Emakumearen Udal Saila eta Emakumearen Kontseilua sortu zenean Topalekua egiteko beharra sumatu genuen eta horren gainean eztabaidatu genuen: Beharrezkoa zen? Zeintzuk arrisku egon zitezkeen?...

- *Eta zeintzuk ziren arrisku horiek?*

Ez genuen nahi gure isolamenduaren beste zirkulu bat



Emakumearen Topalekuaren 10. urteurrena ospatzeko egindako brindisa.

sortzea. Elkartzeko, elkar ezagutzeko, leku propioa izateko eta formatzen jarraitzeko lekua behar genuen, baina gure asmoa mundua transformatzea zen, ez barrura begira egon. Hori dela eta, Topalekuari bultzada eman genion.

- *Eta zuen hasierako helburu horiek bete dituzue?*

Bai, elkarreko gure lekua topatu dugu hemen, Udal langileen laguntza izan dugu, martxoaren 8an eta azaroaren 25ean egiten genituen ekintza guztiak bateratu eta indartu ditugu... Gainera, gureganatu ezin genituen emakumeengana ere heldu gara. Eta bide

horretan, Jabekuntza Eskolak berebiziko garrantzia izan du.

- *Aurretik bazeduten elkarrekin gain, talde berriak sortu dira?*

Bai, Tratu Onen Aldeko Plataforma, esaterako. Bestalde, Topalekua emakumei zuzenduta egon arren, berdintasunaren alde lan egiten duen gizon taldea ere sortu da, Ziprztintzen. Topalekua erreferentzia puntu bilakatu da edozein emakumerentzat eta gure egoera gizartean eta gure ekarpenak agerian ipintzeko tresna da. Horrez gain, gazte eta helduengan eragina izatea lortzen goaz eta Udaleko beste Sailekin elkarlana sustatzen dugu.

- *Hasierako urteetako beharrak eta gaur egungoak ezberdinak dira?*

Hasierako urteetako irtenbidea eman zitzaien: tra-

tu txarrak jasaten zituzten emakumei babesa ematea, esaterako. Baina gaur egun, berdintasunarekin zerikusia duten gai guztiak oraindik ere Berdintasun Sailetik kudeatzen dira, eta zeharkako lana egin beharko litzatekeela uste dugu. Pausu batzuk ematen hasi da Udala dagoeneko. Hirigintza Sailean, esaterako, herriko lekuri arriskutsuen mapa egin da. Baina, emakumeak herriko kaleen izenetan ez gara agertzen, gure lorpenek ez daukate inongo oihartzunik eta ez dira aintzat hartzen. Heziketari dagokionez, ez da nahikoa umeei hitzaldi batzuk ematea, irakasle eta gurasoak ere berdintasunaren transmisioan inplikatu behar dira. Lan handia daukagu egiteke.

- *Gauza asko lortu dira, baina atzera pausak ere eman dira. Nola bizi zenu-*

“Hirigintzari dagokionez, emakumeen lorpenak ez dira kontuan hartzen”



Drogeteniturrri, 210 zkia.



ten Familia-Plangintzako Zentroaren itxiera, esaterako?

Lan gogorra egin genuen Osakidetzak 'planning'a ez ixteko baina azkenean bere gain hartu zituen hark burutzen zituen lanak. Kontua da, baina, Osakidetzak ez dituela lehengo zerbitzu denak eskaintzen, antisorgai-

luen gaian zentratzen delako soilik. 'Planning'aren izen osoa 'Informazio sexuala eta familia-planifikatzeko zentroa' zen eta garai hartako emakumeok sexuarekin lotura duten beste kontu batzuk jorratzen genituen: nola lortu harreman igualitarioagoak, atsegingarriagoak, zer diren eta nola trans-

"100 ikastaro inguru egin dira Jabekuntza Eskolan, baina gazte gehiago nahiko genituzke"

mititzen diren sexu-transmisiozko gaixotasunak... Gaur egungo gazteek informazio hura eskura dute bai-

na ez dute ez eskolan ez beste inon horrelakorik lantzen, eta oraindik ere beharrezkoa dela uste dugu.

- Gazte askok parte hartzen du Jabekuntza Eskolan?

Batzuk badaude baina gehiago nahiko genituzke.

- Krisiak eragina izan du Emakumearen Topalekuan?

Bai eta datu zehatza dago: Orain arte jardunaldi osoa zuen langilea zegoen Topalekuan eta lanaldi-erdia eskaini diote aurten. Horren eraginez, lana utzi du eta beste langile bat kontratatu dute. Jakina, horrek Emakumearen Etxean ematen diren zerbitzuetan eragina du. Lehena? Ostiral arratsaldetan, esaterako, Etxea itxita dagoela, ezin da ezer programatu langilerik ez dagoelako. Horrelako lanetan bokazioak pisu handia izaten du eta askotan langileek behar baino ordu gehiago ematen dute lanean, baina hori beste kontu bat da.

Dorleta Vidal

EMAKUMEEN TOPALEKUA 2003/2013

- Zenbat ikastaro eman dira Emakumearen Topalekuan 10 urte hauetan?

Jabekuntza Eskolak 98 ikastaro eta tailer inguru egin ditu. Eskola horretatik kanpo, 21 hitzaldi eta solasaldi inguru burutu dira Ermuko Topalekuan.

- Zenbat ikasle/emakume formatu dira?

Ez da erraza kopuru zehatza ematea. Iaz, esaterako, 164 emakumek parte hartu zuten ikastaroetan, baina kontuan izan behar da gaur egun 9 ikastaro egiten ditugula urtero. Duela urte batzuk, berriz, 18 inguru egiten genituen, eta ondorioz, ikasle kopurua bikoitza edo hirukoitza izango litzateke.

- Bestelako ekimenik egin duzue?

45 erakusketa inguru antolatu ditugu, 30 txango-kultural eta 205 bisita, gutxi gorabehera.

- Zenbat emakumeri ematen diozue arreta urtean?

Batez beste 2.000 arreta-zerbitzu inguru ematen ditugu urtean. Arreta psikologikoa eta juridikoari dagokionez, 60 emakume ingururi ematen diogu babesa urtero.

- Zenbat langile izan dira Emakumeen Topalekuan?

Martxan hasi zenetik 5 langile egon dira. Begoña Fernández (Berdintasun Teknikaria), Eli Moreno (aurreko administratzailea), Julia López (aurreko dinamizatzailea), Laura Fernández (gaur egungo administratzailea) eta Zaida Fernández (egungo dinamizatzailea).

- Zenbat taldek eta emakumek osatzen dute Emakumeen Kontseilua?

Gaur egun honako taldeek osatzen dute Berdintasun Kontseilua: Ikasle Ohien Elkartea, Minbiziaren Kontrako Elkartea, Emakumeen Asanblada, Izarraitz antzerki taldea, Tratu Onen Aldeko Plataforma, Bidari, Garaitza... Lehen talde gehiago zeuden: Zine eta Emakume Aretoa, Emakume Gazteok-Nushu, Alargunen Elkartea... Talde hauetako ordezkariak gain, hainbat alderdi politikoaren ordezkariak ere parte hartzen dute Kontseiluan: Bildu, PSEE eta EAJ-ko emakumeek, besteak beste. Emakume independenteak ere joaten dira, euren kabuz, interesa dutelako. Kontseilua parte hartzeko erakunde irekia da.

Ferreteria/Burdindegi

ANBOTO

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikuluak

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da

AUTO-REPARACIONES AREITIO, S.L.

634 errepide nazionala - 69,5 km.a Areitio Gaina 15 · 48269 - Mallabia
Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15
www.areitiomotor.com
administracion@areitiomotor.com / areitiomotor@areitiomotor.com

Quetzal

[arropa, bitxiak, opariak...]

berria!!
ekainetik aurrera
Eibarren ere

Goienkale, 9 · 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 · 20600 EIBAR 943531500

Felipe Zelaieta:

“Ez neuke mundu hau utzi nahi Artixeko eskolan kantau barik”

Gasteizen bizi da Felipe Zelaieta mallabitarra. Irakasle ofizioz, bertso kantuen aritzen da afizioz. Jokatu barri dan Arabako Bertsolari Txapelketan parte hartu dau.

- Nondik datortzu bertsoarako afiziñue?

Euskal Herriko finaletara eta beti joaten ginen Mallabitik, baina sua piztu, hemen, Gasteizen egin jatan.

- Noiz hasi zinen bertsoan? Eta zelan ikasi dozu?

Gasteizera etorri eta gutxira hemengo bertso-eskolan lehenengo pausak emon nittuen, baiña laster beldurre sartu jatan. Gero, lotsie galtzen hasi nintzenien, eta semiek parrandan hasi zirenien, orduen ezagututako bertsoari animatuta barrero hasi nintzen.

- Jakin dogu aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketan aritu zarela. Zelako esperientzie izen da?

Ordu askotako bihera. 9 bertso neurtzen die txapelketa baten eta hanka sartze txikixenarekin, akabo dana!

- Zelan ikusi dozu zure burue?

Gustora nago egindakoarekin, baina hurrenguen hobeto egin biher.

- Zelan entrenau zara hone tarako?

Ezin da siñistu zenbat ordu sartzen doguzan! Geure artien, batez be. Soziedade baten dala, edozein bazkari-tan dala... Edozein bertso-arik esango deustu bardiñe.

- Bertsoarako zelako afiziñue dau Araba aldien?

Hemen edade bateko jendie ez da euskaldune. Publikue gaztie da gehixen bat, eta gaztie beti nahi dau zezozer desberdiñe. Antzerkitik hurrago dago hemengo bertsoaritzza.

- Txapelketiaz gain, zelako saietan ibiltten zara bertsoan?

Batez be eskoletan eta. Goiko maillan ez gagozenok geure zirkuituek topatu biher izaten doguz eta edozertarako prest egon. Aste Santuko prozesiñuen be kantatzen dot, hortik etara kontuek!

- Plazan, txapelketan edo afarixetan aritzen zara gustoruen?



Danak be, ondo janda gero hobeto kantatzen dogu, ezta? Umorerako joerie daukat.

- Bertsoan batuan ala mallebittar egitten dozu?

Batuan egiten dot beti, holan ikasi nabene-eta. Mallabixen biziko banintz saiatuko nintzake aldatzen, baina ahalegintxue eskatzen dau. Gaiñera pentsatzen dot bizkaitarroi be gustatzen jakula bertsoarixe batuaz entzutie.

- Aukerie bazeunke, zein plazatan kantatzie gustatuko litzaizuke?

Ez neuke mundu hau utzi nahi Artixeko eskolan, neure lehenengo eskolie izen zan eskolan, kantau barik.

- Musika zalie zarela be entzun dogu...

Bazkari eskotan danak ez die bertsoarixe izaten; sarri batzuk euskaldunak be ez. Horretarako sortu dogu ‘Siri-miri band’, kantue eta bertsoe nahastuz. Gure dabenak ikusgai dauke youtuben bidixoren bat.

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre

“Aste Santuko prozesiñuen be kantatzen dot, etara kontuek!”

IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

- Sagardotegiak, ezkontzak, jaiotzak, Errioxa, elurra, bidaia turistikoak...
- Profesionalak gara lantegietara, eskoletara eta kirol taldeak eramaten.

ALCONADA
autobusak
610 28 39 39
busalconada@gmail.com

Preziorik onenean egingo dizugu aurrekontua

Eskaintza bereziak!

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

FUTBOL TALDERAKO BAZKIDE KANPAÑA MARTXAN

Mallabia F.T. taldeiek aurten be bazkide kanpañie jarri dau martxan. Gehituz doiezan gastuei aurre egitteko laguntzie eskatzen deusie jentiai. Horretarako bazkide egiñez lagundu nahi dabenak, Carlos edo taldiangana jo daixela informaziño bille.

TUTE TXAPELKETIE BASTIDA TABERNAN

Apirilan 6xen, arratsaldeko 17:00etan egingo da Tute Txapelketie Bastida tabernan. Izen emotie, bikoteko 5 eurukue izengo da. Lehenengo sarixe, batutakuan %75 izengo da; bigarrena, jasotakoan %25. Eta hirugarren bikotiek bi arda botila jasoko dauz sari moduen.

BERTSO SAIUE

Orraitio Euskara Elkartiek apirilan 21ean, arratsaldeko 17:30ean, bertso saiue antolatu dau herriko frontoien. Taula gañien 5 bertsolari arituko die: Unai Iturriaga, Igor Elorza, Odei Barroso, Julio Soto eta Beñat Ugartetxea. Gai jartzaille lanetan Asier Ibaibarriaga izango da. Sarrerie 5 eurukue izengo da.

BIHARKO IZARRAK TXAPELKETIE

Aurrera doie otsailan 23ean hasierie emon jakon Biharko Izarrak Txapelketie. Bertan 24 pilotari gazte batu dittun txapelketa honek ondorengo egunetan jarraituko dau:

2013-03-21	21:15	AGIRRE - LASA OLAETXEA - IMAZ	ARTOLA - ETXAMENDI URREBIZKAIA - MURGIENDO
2013-03-28	21:15	BIXINTXO - PEREZ ARTOLA - BOLINAGA	SANTXO - IRUSTA AGIRRE - ARRATIBEL
2013-04-01	17:00	JAKA - AIZPURUA AGIRRE - IRUSTA	ANSOTEGI - TOLOSA ARTOLA - PEREZ
2013-04-04	21:15	BIXINTXO - ETXAMENDI URBIETA - PEREZ	SANTXO - LASA ARRIETA - IRUSTA
2013-04-11	21:15	OLAETXEA - AIZPURUA DORONSORO - ARRATIBEL	URREBIZKAIA - TOLOSA URIONA - BOLINAGA
2013-04-18	21:15	URIONA - GALARZA ARTOLA - MURGIENDO	DORONSORO - REZUSTA AGIRRE - IMAZ
2013-04-25	21:15	JAKA - ARRATIBEL ARRIETA - AIZPURUA	ANSOTEGI - BOLINAGA URBIETA - TOLOSA
2013-04-30	21:15	ANSOTEGI - PEREZ URIONA - MURGIENDO	JAKA - IRUSTA DORONSORO - IMAZ

ELKARTIENTZAKO 2013KO DIRU LAGUNTZAK

Udalak jakiñarazi deuskunez, hile honetan amaittuko da 2013ko elkartientzako diru laguntza eskaerie. Eskaera hau herriko edozein elkartek eskatu leike bere egitasmuek aurrera erueteko. Beraz, interesa dozuenok martxo amaittu baiño lehen hurreratu Udaletxera.

MALLABIKO TOPONIMOAK JASOTA

Justo Azagirre eta Pello Mugarzak 2011ko apirilien hasitako Toponimia (leku izenen datu bilketa) amaittu dabe. Lan hau egitteko proposamena Udaletxetik jaso eben, Udalak hitzarmena sinatu baitzeban Euskaltzaindiakin. Orain, datu guztixek jasota, Euskaltzaindia aztertze lanetan dabil, toponimiak mapetan kartografiatu eta urtie bukatu orduko lehen mapie prest eukitze espero dabe.

EURITTIEK ONDORIXUEK KOPONTZEKO LANAK

Otsailen egindeko eurittiek hainbat arazo eragin zittuen Markiñeko bide zaharrien, Urkixan zein Mallabiko beste hainbat lekutan. Eguraldi txarrak eragindeko luperixak eta kaltiek kopontzeko lanak, eguraldixe hobetu eta lurre siketzen daniene hasiko diela jakinarazi dau Udalak.



Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312



Zure umeen arropa denda!!

Orbe Kardinalaren plaza, 8 · ERMUA



MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua, bokatak, plater kombinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxita)



MUGA

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA



ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

Juanmi Bravo, Berbalagun praktika egitasmoko arduraduna: “Euskara elkarri ematen jarraitzeko euskaldun zaharrak ere behar ditugu”

11 urte pasa dira Berbalaguneko lehen edizioa burutu zenetik eta urte hauetan guztietan ehunka lagunek parte hartu dute egitasmonek sortutako berba taldeetan. Hirugarren ediziotik aurrera dihardu Juanmi Bravok koordinazio lanetan.

- Zein da egitasmonek honen helburua?

Praktika egitasmonek guztiek dituzten helburu komunak: euskara bere osotasunean praktikatzea, euskaldunak elkar ezagutzeko eta euskararen ahozko presentzia areagotzea. Honetarako Ermuan Berbalagun eta Gurasolagun egitasmok ditugu.

- Zenbat lagun ari dira parte hartzen aurten?

Aurten 90 berbalagun inguru eta 20 gurasolagun inguru ditugu euskara elkarri ematen. Gurasolagun egiten hasi denetik, duela 4-5 urte, kopuru hau mantendu egin da. Aurretik, 80 lagun bueltan ibiltzen ginen. Beraz, guraso taldeek handitu egin dute kopurua. Malla-bian ere taldetxo bat ibili zen bere kabuz baina, zoritxarrez, orain ez dago martxan.

- Zein da berbalagun eta gurasolagun kideen perfila?

Adinari dagokionez nahiko jende heldua da, 30-60 urte bitartean orokorrean, eta emakumezkoa da gehiena. Gurasolagunen, esate baterako, gizonezko bakarra daukagu. Bestalde, euskaldun berriak eta euskara ikasleak dira gehienbat, baina euskaldun zaharrak ere badira, izan ere beste herriekin konparatuz berbalagun euskaldun zahar asko ditugu Ermuan, %10a inguru. Hala ere, kopuru horrek urte hauetan behera egin du eta aprobetxatu nahi nuke dei bat egiteko.

- Zein da Gurasolagunen bereizgarria?

Gurasolagunek Berbalagunetik dituen ezaugarri berak ditu, baina Gurasolagunetik transmisioa gehitzen zaio. Eskola irteeran batzen dira talde hauek eta guraso eta seme-alaben artean transmisioa lortu nahi da. Umeek ikustea gurasoak badirela euskara egiteko gai.

“Gurasolaguni esker, guraso eta seme-alaben artean transmisioa lortu nahi da”



- Zein euskara maila izan behar da parte hartzeko?

Maila baxua dutenek ere parte har dezakete. Ermuan bi talde daude: bata normaltasun osoz hitz egiten du euskaraz, eta besteak maila apalagoa du. Azken horretan nire gidaritzapean ibiltzen dira.

- Non biltzen dira?

Guraso gehienak seme-alabak Ongarai Eskolakoak dituztenez bertako aretoan egiten dituzte solasaldiak.

- Berba-taldeen gain, ikastaroak eskaintzen dituzte egitasmok, berbalagun guztien artean aukeratuta. Zenbat lagunek eman dute botoa aurten?

150 pertsonak parte hartu du bozketan. Kopurua

oso altua da, euskaltegieta-ko ikasleek eta beste edizioetan parte hartu izan dutenek ere botoa eman dutelako.

- Ikastaro berririk ba al dago?

Bai, aurten gantxilo ikastaroa izango da. Horrez gain aspaldi egiten ez ziren ikastaroak ere egongo dira aurten: euskal dantza ikastaroa, masaje ikastaroa eta makilaje ikastaroa.

- Nora jo behar da parte hartu ahal izateko?

Udaleko Euskara Sailera, AEK-ko, Udal Euskaltegi eta Euskal Biruseko egoitzetara. Bestalde: ermua_berba@ae.org / 639414205.

Ane Sáenz eta Dorleta Vidal

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19 48260 ERMUA
Telefona 943 17 22 43 (Bizkaia)



Puri Antón, Oskar Gómez, José Luis Gimeno eta Sergio Rodríguez astelehenero biltzen dira, Moloko tabernan, 10.00etan. Kafea hartzen duten bitartean, asteburuan egindakoaz hitz egiten dute, gertatutako gauzez, bi daiez... gidoi barik eta aurretik ezer prestatu barik. *“Euskaltegian edota Hizkuntza Eskolan ikasitakoa ez ahaztea da helburua, soltatzeara, euskaraz hitz egiten ausartzen hastea”*, diote 64 eta 34 urte bitarteko berbalagun hauek. *“Batzuk lanean euskaraz egiteko aukera daukagu, batez ere bezero edota erabiltzeekin (lanaren arabera). Lankideekin, ordea, zaila da euskaraz egitea, batez ere lehendik gaztelaraz berba egiten ohituta bazaude”*, diote guztiek.

Ordubate igarotzen dute elkarrekin eta, euren arabera, Berbalagunek euskara praktikatzeko aukera paregabea eskaintzen die. Hala ere, *“talde handiagoo izanez gero, erakargarriagoa litzateke. Beraz, gure taldeko kide zaretenok eta saioetara ez zatoztenok, mesedez, etorri zaitzete!”*. Berbalagun hobetzeko proposamenak ere badituzte: *“Faltan botatzen dugu euskaltegiko irakasle bat noizean behin gurekin biltzea, gaizki esaten ditugun gauzak eta akatsak zuzentzen joateko”*. Gramatika klaseak ere aipatzen dituzte kide batzuk, baina gainontzekoak ez daude ados: *“Hori norberak ikasi behar du. Ez ditugu liburuak nahi!”*, diote.

Laura Álvarez, Ani González, Ainara Holguín eta Marisa Miguel ahozko euskara indartzeko, ikasitakoa praktikatzeko eta beldurra eta lotsa kentzeko batzen dira asteazkenean, 18:00etan. Jai tabernan egoten dira ordubatez eta, gehienetan, emakumezkoak bakarrik biltzen direnez bizitza, gizonak, erosketak, ilea eta lana izaten dituzte mintzagai, berbalagun baten semetxo Goroka entzule duten bitartean. *“Inprobisatu egiten dugu, gustuko ditugun gaiak jorratuz. Zalantzak ditugunean, berriz, gaztelaraz ematen dugu azalpena edo taldeko Ainarak laguntzen digu”*, diote.

Berbalagun sortu zenetik (orain dela 11 urte) Ainarak urtero-urtero parte hartu du

eta bere koadrilako lagunak egitasmo honetan ezagutu zituen. *“Ostiraletan gertatzen ginen berba egiteko eta amaitutakoan, ostirala zenez, pote batzuk hartzen genituen. Txango eta ikastaroetara ere elkarrekin joaten ginen eta azkenean elkarrekin irteteko ohitura hartu genuen”*. Izan ere, euskal hiztun sarea sortzea ere bada egitasmo honen helburu.

Mutil gehiagok parte hartzea faltan botatzen du 30 eta 39 urte bitarteko gazte talde honek, *“guapoak, ahal bada, horrela motibatuagok etorriko ginateke”*, diote barrezka. Mutil barik ere oso gustura batzen direla aitortzen dute eta euskara praktikatzeko abagunea esker-tzen dute.



uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

**mari
asun** 
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379



Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

ARTARRAI
OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

VIII. FOLKEZ BLAI LEHIAKETA ABIAN DA

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten folk taldeek maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute euren grabazioa Ermuko Udaleko Kultura Sailean. Aukeratutako 6 taldeek kontzertua eskainiko dute irailaren 13, 14 eta 15ean eta bakoitzak 400 euro jasoko ditu. Irabazleak, gainera, 3.000 euro jaso eta Getxofolk jaialdian parte hartuko du; bigarren sailkatuak 1.500 euro jasoko ditu.

ASTE SANTUKO KOLONIETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Martxoaren 26an bukatuko da Aste Santuko kirol-kolonietan izena emateko epea. Udal Kirol Erakundeak antolatuta, apirilaren 2tik 5era arte burutuko dira kirol-saio hauek, euskaraz, eta 6 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta daude.

Euskal Jaia apirilaren 13 eta 14an ospatuko da

Emegebost taldearen erromeriak emango dio hasiera aurtengo Euskal Jaiari, apirilaren 13an, 19:00etan. Hurrengo egunean, taldeen harrera egingo du Txindurri Txistu eta Dantza Taldeak 10:00etatik aurrera San Pelaioko parkean eta 11:00ak eta 12:30ak bitartean kalejira egingo dute taldeek herriko kaleetan zehar. 12:30etatik 14:00ak arte dantza erakustaldia egingo dute plazan eta 17:00etan umeen alardea egingo da leku berean.

Yuzz programako gazteek ideiak garatzen dihardute

Izarra Centerren dagoen Yuzz zentroko gazteek oinarri teknologikoa duten proiektuetan dihardute lanean. Joseba Arginzoniz, Aritz Posada, Xabier Vadillo eta Zacarias Elfouki ermuarrek Click&Use sortuko dute, artxiboak igo eta hodeitik erreproduzitzea ahalbidetuko duen hodei multimedia; Eibarko Alain Murillo hondakin ez organikoak zapaltzen dituen zakarrontzia diseinatzen ari da; Durangoko Victor Pérez 3D inpresora garatzen ari da; Discauri Salas eibartarrak ikasle-entzako sare soziala sortzeko asmoa du eta Agate Agirre eta María Rosa Álvarez ermuarrek erabilerraztasuna bermatuko dituzten ibilbideen bilatzea garatzen dihardute.

**Heziketarako XII. Mintegia burutu du Eskolabarrik**

'Ohitura osasungarriak: Kirola eta Elikadura' izenburupean, heziketa saio ezberdinak egin ditu Eskolabarri eskolak martxoaren 1a eta 9a bitartean. Arrakastatsuen, antolatzailen arabera, kirola egin eta bizitza aktiboa sustatzeko hitzaldi-tailerra izan zen. "Umeen adinaren arabera ariketa fisikoa egokitzeko irizpideak eta herrian dauden aukerak batzuk ezagutzeko eta praktikatzeko aukera eman genuen besteak beste", diote antolatzailerek.

**Anaitasuna Ikastolako ikasleak eski gainean irristaka**

Berriemaileak: Jon García, Jaione González eta Jone Malbadi, Anaitasuna Ikastolako 6. mailako ikasleak.

Azken 20 urteetan Anaitasuna Ikastolako 5. eta 6. mailako neska mutilak monitorea eta irakasleekin otsaila inguruan eskiatzen ikastera joaten dira. Aurten Somportera (Frantziara) joan dira otsailaren 21 eta 22an. Autobusez lau ordu t'erdi pasatu ondoren eskiak alokatu zituzten. Laurogei ikasleak, eskiak eta botak hartuta, Somporteko pistetara abiatu ziren.



Ikastolako ikasleak Somporten eskiatzen

Eskia neguko kirolen artean errege da eta azken hamarkadetan izugarriko gorakada izan du. Eski mota zaharrena ipar-eskia edo iraupen eskia da eta izenak dioen moduan iparraldeko herrialdeetan sortu zen. Goizean monitoreekin ipar-eskian trebatu eta bazkaldu ostean ibilbide luzeak egin zituzten pistetan zehar. Paisaia oso polita izan zen, mendi guztiak elurrez estalita zeuden eta zerua urdin-urdin.

Gauean Canfranc herriko aterpe batean egin zuten lo eta primeran pasatu zuten bi taulen gainean irristaka, jolasean elurraz gozaten. Datorren urtean berriz itzuliko dira.



Drogeteniturrri, 210 zkia.

Arinka
Ume eta gazteentzako zapata-denda...
40ra arteko zkiak ditugu
VI Centenario 17 (Doan zapata-denda ohian)
ERMUA - Bizkaia / 943 17 41 26

SEHIGA
LAN-BABESA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

KORRIKA 18 KM EROSLEAK

ERMUA

Alboka musika Eskola
 Artarrai mendi taldea
 Bertso Eskola
 Euskal Birusa Euskara Elkarte
 Anaitasuna Ikastolako Guraso Elkarte
 Txindurri Txistu eta Dantza Taldea
 Emakumeen Asanblada
 Emakumeen Sustapenerako Zentroaren Ikasle Ohiak
 Emakumearen Udal Kontseilua
 Infreñu taberna
 HERRIA
 Tennecoko langileak
 ELA Tenneco
 Tenneco Innovación-eko langileak
 EAJ/PNV
 Anaitasuna LH, Ongarai LH eta BHI,
 Esolabarri eta San Lorenzo ikastetxeetako irakasleak

Elkarte gastronomikoak:

* Txalaparta
 * Malengo
 * Arari
 * Erretena
 * Urdinak
 * Egarrri
 Berbalagunkideak
 Irulitxa Fanfarrea
 Ermuko Udalaren Euskara Zerbitzua
 Herri Muga
 Barça futbol taldearen jarraitzaileak
 Erreala futbol taldearen jarraitzaileak
 Ermua-Eibar Uniko irakasleak



AEK/Korrika

MALLABIA

Mallabiko langileak
 Mallabiko AEK-ko ikasleak
 Jasokunde eta Mendibil abesbatzak
 Mallabia I Pelota Taldea
 Mallabiko Futbito Taldea
 Orattio Euskara Elkarte
 Mallabiko Udala
 Mallabiko Eskola
 Eskolako Guraso Elkarte
 Herriko taberna
 Izar Gorri Elkarte
 Nahikari Emakume Taldea
 Txondor Kirol Taldea

Kaltxango AEK Euskaltegiaren izenean, eskerrik asko kilometro erosleei eta Ermua eta Mallabiko dendari eta ostalariei.

la 200 zuhaitz landatu dira III. Zuhaitz Egunean

Artarrai Mendi Taldeak Zuhaitz Egunean 3. edizioa burutu zuen martxoaren 3an eta adin guztietako jendea batzea lortu zuen, *“natura maitatzen eta zaintzen ikasteko, ingurugiroari bultzada txiki bat emanez”*, antolatzaileen arabera. 195 zuhaitz landatu zituzten, gehienak haritzak eta pagoak, baina gurean ohikoak ziren eta orain oso gutxi ikusten diren arbolak ere jarri zituzten: hagina, mizpillak, ezkia, ezpelak... Parte hartzaileak 10:00etan elkartu ziren plazan eta Sallabente gainean dagoen zonaldera joan ziren, Joxio izenez ezaguna omen dena, antolatzaileen esanetan. *“Ume bakoitzari zuhaitz bat eman genion baina, zoritxarrez, nagusiendako ez ziren gelditu jende asko joan ginelako - diote. Zuhaitza nola landatu behar den azaldu eta gero, aitzurrak banatu genituen eta lanari ekin, hirunaka edo launaka elkarri lagunduz: zuloa egin, lurra kendu, zuhaitza kokatu, lurrez sustarriak estali eta abar. Ordu pare bat eman genuen horretan”*. Artarrai Mendi Taldeak datorren urtean ere ekintza honen jarraitze-ko asmoa du.



MARTXOAREN 22AN BUKATUKO DA IX. UNI-ENCOUNTER

Uni Eibar-Ermua BHIK urtero antolatzen dituen ‘Uni Encounter’ jardunaldi informatikoak martxoaren 15ean abiatu ziren. Hauen baitan, hainbat hitzaldi entzuteko aukera egongo da Ongarai-eko eraikinean: ‘Gure webgunea nola hackeatu’, ‘Mugikorretako segurtasuna’ eta ‘Droid bat (GPS bitartez gidatutako hegazkinak) nola egin’, besteak beste. Gainera, 22an, ostirala, jokoan eguna izango da. Informazio gehiago jaso- tzeke eta aurreko urteetako argazkiak ikusteko www.iesunibhi.com webgure-nera jo daiteke.



MUSIKA
 ESKOLA

- Akordeoia
 - Biolina
 - Biolontxelo
 - Bonbardino
 - Flauta
 - Kantua
 - Gitarra
 - Gitarra elektrikoa
 - Gitarra baxua
 - Lengoia musikala
 - Klarineta
 - Panderoa
 - Perkusioa
 - Pianoa
 - Saxofoia
 - Trikitrixa
 - Tronboia
 - Tronpeta
 - Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
 juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



Sagra Escudero, gozogilea:

“Sukaldaritza baino, jan egiten diren eskulanak egiten ditut”

Peggy Porschen gozogilearen liburu bat irakurri ostean hasi zen Sagra Escudero sukaldean endredatzen, osagaiak, koloreak eta formak nahasten. ‘Buttercream’a da bere gozoben oinarria, hau da, gurina eta azukre-hautsa, eta ‘cup cake’ak eta pastelak egiten ditu batez ere.

- Zein izan zen zure lehen gozoa?

Eskuz egindako arrosez beteriko ‘cup cake’a izan zen (madalena antzeko pasteltxoa). Asko kostatu zitzaidan, irabiagailu aproposa ez neukalako, ez ‘fondant’... Duela urtebete inguru hasi nintzen honetan. Bajan nengoen eta erronka moduan hartu nuen gozogintza.

- Diru asko inbertitu duzu behar zenituen gailu guztiak erosteko?

Gozogintzak beharrak ditu eta honetan hasi eta handik gutxira KitchenAid robota erosi behar izan nuen. Lana asko errazten duen oratzeko makina da eta 500 euro inguru kostatu zitzaidan. Gainontzeko osagaiak topatzea ez da erraza; Internet bidez erosi behar dira askotan eta nahiko garestiak dira. Baina tira, gozoak saltzen ateratzen dudana dirua, gauza berriak erosteko inbertitzen dut: moldeak, Wilton koloratzaileak, orea moztekoak...

- Zenbat denbora behar duzu tarta bat egiteko?

2, 3 edo 4 egun behar izaten dit, orea egin eta hozkailuan sartu behar delako, atera, landu eta berriro sartu... Hozkailua topera daukat! Hala ere, nire senarra hozkailuan dauden gauzak jaten joaten da. Ni, ordea, ez naiz batere gozozalea, ez ditut sekula jaten.

- Zer esaten dizute inguru-koek?

Nire lagunak nire esperimentu guztiak probatzen dituzte eta umeak zoratu egiten dira!

- Zer ematen diozu garrantzia, itxurari edo zaporeari?

Gauza bien artean oreka bilatzen saiatzen naiz. ‘Cup cake’ak zapore ona izatea ezinbestekoa da. Kolore biziak dituztenak arreta deitzen dute, baina egia da jaterako orduan, txokolatea dituztenak aukeratzen dituela jendeak.

- Non eros daitezke?

Merkatu plazako okindegian saltzen dira. Bertako Maite nire bizilaguna da eta behin nire pastelak ikusi eta salgai ipintzeko eskatu zidan.

- Zenbat balio du zuk egindako ‘cup cake’ak?



Okindegikoek ipini diote prezioa, nik ez dakit baloratu.

- Zein da sukaldean ondo aritzeko sekretua?

Behin eta berriz saiatzea eta pazientzia izatea. Gozogintzan oso zorrotza izan behar da osagai eta neurriekin, jende asko ez dago ohituta horrelakoak errespetatzen, baina ezinbestekoa da. Horrez gain, ni oso burugorria naiz eta ez naiz erdi-mailako emaitzekin konformitzen. Baina gauzak nire kabuz egin behar ditut, ez dut ez ordutegirik ez laguntzailerik nahi. Gauzak bakarrik egiten disfrutatzen dit.

- Sukaldaritza orokorrean gustatzen zaizu?

Bai. Hala ere, nik egiten dudana gozogintza ez da sukaldaritza nire ustetan, es-

kulanak dira, jan egiten diren sormen lanak. Nire blogean errezetak eta argazkiak ikus daitezke: amasandosabor.blogspot.com.es

- Zein da zure hurrengo erronka?

Modelatutako panpinekin egindako ‘fondant’ pastela egin nahi dut, hartzekin edo sirenekin...

- Gogo handiarekin hasi zara honetan. Jarraitzeko asmorik baduzu?

Hasten dudana guztia bukerara arte jarraitzea dut gustuko. Iaz baserritar jantziak egiten ibili nintzen buru-belarri. Lekeition daukat koadrila eta Santo Tomas egunean baserritarrez jantzen da jendea. Josteko makina erosi eta lagunak jantziak eta nirea egin nituen!

Dorleta Vidal

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...



JOSE ANTONIO ARRONATEGI

- Gaztaroan...

Esku pilotan jokatzeari, mendira joatea eta bari-ku eta zapatuan parrandan joatea gustuko nuen. Ematen ziguten diruarekin konformatu behar!

- Zer ikasi zenuen?

Irakasle ikasketak egin nituen Gasteizen.

- Lanean noiz hasi zinen?

Soldaduska bukatu ostean, produktu kimikoen agente komertzial aritu nintzen, jendeari galdeketa eginez. Eta ondoren, ostalaritzan hasi nintzen.

- Nondik dator 'Herga' izena?

Herga aurreko jabeen abizenen baturatik dator, eta ez dut izena aldatzea pentsatu.

- Zein ordutan hasten zara lanean?

Goizeko 7ak eta laurdenetan irekitzen dut taberna.

- Lan egiterako orduan...

Gaupasa egitea baino, goiz jakitea dut nahiago.

- Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna? Eta gutxien?

Jendearekin kontaktuan aritzea gustatzen zait. Argi eta ur fakturak ordaintzea, berriz...!

- Krisialdia tabernan igaritzen da?

Bai, astegunetan poztasun gutxiago ikusten da bezeroen aurpegietan.

- Krisialditik ateratzeko...

Lana sortzea da erremediorik onena, baina ustel-



Jose Antonio Arronategi 'Arro' 46 urteko tabernaria da, Herga tabernan lan egiten duena. Patriciarekin 26 urte daramatza ezkondua eta Oihane izeneko alaba dute.

keria delituetan nahasita dauden politikariek jai daukagu. Gazterian jarri behar dugu konfiantza etorkizuna eraikiko dutenak eurak dira-eta!

- Ostalaria izango ez bazina?

Abere eta baratzedun baxerria edukiko nuke.

- Zeintzuk dira tabernan entzun daitezkeen gaiak?

Lana eta futbola.

- Zer esango zenuke futbolaren gainean?

Athletic zalea naiz, taberna zuri-gorritz pintatzea besterik ez zait falta!

- Kinka larrian dago taldea...

Bai, baina bigarren mailara jaitea ezinezkoa da!

- Zer egiten duzu burua la-saitzeko?

Mendira joaten naiz, eta jai egunetan herritik ateratzea atsegin dut.

- Musika...

Rock and Rolla: Rolling Stones, Los Ramones, Eric Clapton...

- Bidaia bat nora?

Argentina edo Australia-ra.

- Zein txoko bisitatu duzu ordea?

Londres, Paris eta Austrian egon naiz.

- Amets bat...

65 urte bete aurretik jubilatzea.

- Kolore bat?

Berdea, Euskal Herrian nagusi delako.

- Gorrotatzen duzuna...

Jende gezurtia, lapurrak eta inbidiatsuak.

- Zerk pozten zaitu?

Pertsona legalak eta ilusiodunak egoteak.

- Jateko gogorik?

Amaren barazki-menes-tra.

- Edari aipagarrik...

Errioxa ardoa eta zerbeza.

- Zer da egunero kale egin gabe egiten duzuna?

Dudarik gabe egunero egiten dut lan.

- Lagun bati eskatzen duzuna...

Zintzotasuna.

- Bizitzak zer irakatsi dizu?

Pertsona zintzoak eta pertsona gaiztoak daudela.

- Egunik zoriontsuena?

Emaztea ezagutu nuenean.

- 26 urte daramatzazue elkarrekin, zein da zure us-tez maitasunari eusteko errezeta?

Ezagutu ginenean bezalakoak izaten jarraitzea.

- Etorkizunerako erronka?

Ordugeirik gabe bizi-tzea, eta alabak ikasi eta lana aurkitzea.

Leire Elustondo

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Iñaki Arrizabalaga, Euskadiko -23ko txapeladuna Duatloi Motzean: “Kirolean, sufritzea gustatzen zait”

Iñaki Arrizabalaga ezagutzen dutenek esaten dute gazte jatorra, oso alaia eta kirolari aparta dela. Horren adierazle, martxoaren 9an Euskadiko txapelketa irabazi izana Durangoko distantzia motzeko duatloian, 23 urte azpiko kategorian. Bi ordu, 10 minutu eta 35 segundo behar izan zituen 10km. korrikan, 40km. bizikletan eta 5km. korrikan egiteko. Ermuko Ostots Triatloi Kirol Klubeko kidea da, gogor entrenatzen du eta etorkizunean triatloiak eta Iron Man-ak ditu erronka.

- Irabazten duzun lehen lasterketa izan da?

Ez, iaz ere Euskadiko txapelketa irabazi nuen, Arrigorriagan, 23 urte azpiko kategorian, baina distantzia luzeko duatloian (12 km. korrika egiten, 75 km. bizikletan eta 12 km. korriketan berriro ere).

- Horrek esan nahi du 23 urtetik beherakoen artean ez duzula parekorik Euskadin?

Bai, oso kirolari onak daude, baina ez zuten iazko lasterketan parte hartu. Aurten, berriz, ni ondo ibili naiz, entrenamendu gogorren ondorioz.

- Beste batzuekin alderatuta, bereziki gogorra izan da martxoaren hasieran irabazi duzun lasterketa hau?

Nahiko gogorra izan da, zirkuitua aldatu dutelako. Iaz, esaterako, ez zen Kanpazar igotzen bizikletarekin eta aurten bai.

- Kirola egiten duzunean pozik zoazela diote zure taldekideek, baina Durangoko lasterketa horretan irribarre gutxi egin omen zenuen...

Egia da, sufritu egin nuen. Bizikleta laga eta azken bueltak korriketan egitea asko kostatu zitzaidan.

- Zenbat entrenatzen duzu?

Ia egunero. Egun batean korrika egitera joaten naiz eta hurrengoan bizikletan ibiltzera, berdin dio hotzak edo euriak. Astean egun batean deskantsatzen dut.

- Zerk erakartzen zaitu duatloiaz?

Zure gorputza noraino heldu daitekeen probatzeko aukera ematen dizu eta usate dut jendeak sufrimendurekin disfrutatu egiten duela kirolean. Nik behintzat disfrutatzen dut. Helburu batzuk ipini eta horrek gaintzen ahalegintzen naiz.

- Euskadiko txapelketa irabazi eta hurrengo egunean beste lasterketa batera joan zinen. Ez zara nekatzan?

Bai, bai, gainera erdi lesionatuta ibili naiz, baina neska-lagunari ilusioa egiten zion. EHUK antolatutako 5 km.ko lasterketa mistoa egin genuen Bilbon.



- Ingurukoek zure kirolzaletasuna ulertzen dute?

Arazotxoren batzuk izaten ditut noizbehinka, batez ere neska-lagunarekin, ezin diodalako nahi beste denbora dedikatu. Oporretan ere bizikletarekin joaten naiz, nahiz eta ohea ere gogoko dudana!

- Zaindu egiten zara?

Saiatzen naiz baina pizza, Nocilla, galletak... denetik jaten dut, eta batez ere txokolata, asko gustatzen zait! Aldiz, parranda gutxi egiten ditut.

- Triatloiera salto egiteko asmoa duzu?

Aurten hasiko naiz baina igeri egitea ez zait gustatzen. Igerilekuak aspertu egiten nau, bakarrik joan-etorria astuna egiten zait. Hala ere, apirilaren 7an Malagara joango naiz Iron Man erdia egitera

- Kirol gehiago praktikatzen dituzu?

Palan jokatzeko dut Ermuko klubean eta Bizkaiko txapelketa jokatzeko dut, baina aurten duatloirako entrenamenduak direla-eta, ez dut parte hartu. Eskupilotan ere aritu izan naiz.

- Taldeko kirolak ez zaizkizu gustatzen?

Futboleko jokatu dut, esaterako, baina duatloian norbera entrenatzen da eta norberak lortzen ditu emaitzak, ez zaude beste inoren menpe.

- Emaitza onak lortzea da zure helburua?

Beno, badakit honetaz ezin naizela bizi, oso zaila dela, eta Diseinua ikasten ari naiz. Nire asmoa kirolaz disfrutatzea da eta, irabazten badut, hobeto.

Dorleta Vidal

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Duatloi Sprint-eko Euskadiko Txapelketa Ermuan burutuko da

Ostots Triatloi Kirol Klubak antolatuta, Sprint distantziako Euskadiko Duatloi Txapelketa egingo da Ermuan martxoaren 23an, larunbata, 17:00etatik aurrera. 240 lagunek parte hartu ahal izango dute, kadete mailatik beteranoetara, eta federatua izatea derrigorrezkoa izango da. Umeek, Duatloi Txikia izango dute egun berean, 12:00etan hasita.

Euskadiko Triatloi Federazioaren arautegiak agintzen duen moduan, 27,5 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute kirolariek: 5 km. korrika egiten, 20 km. bizikletan eta bukatzeko beste 2,5 km. korrika egiten. Oinez egin beharreko ibilbideetan herriko kaleetan barrena arituko dira parte hartzaileak eta bizikletan osatu beharrekoan, Ermua-Mallabia-San Pedro-Hanbre Industrialdea-Ermua zirkuituari bitzuli eman beharko diote. Trantsizio gunea, berriz, Orbe Kardinaren plazan egongo da.

Proba hau Euskal-Nafar zirkuiturako puntuagarria da eta parte hartzaileek denbora mugatua izango dute ibilbideak burutzeko: Korrika egin behar duten lehen lasterketa osatzeko 28 minutu eta berau eta bizikletako zirkuituari buelta emateko 45 minutu izango dituzte asko jota.

Sari ugari

Ostots klubak 1.800 euro banatuko ditu sarietan. Absolutu mailan lehen hiru postuetan geratzen diren gizonetako eta emakumezkoek 300, 200 eta 100 euro jasoko dituzte hurrenez hurren, garaikurrarekin batera. Taldeei dagokienez, 150, 100 eta 50 euro banatuko dira, gizonetako zein emakumezko kategorietan, eta garaikurra. Gai nontzeko kategorietako lehen sailkatuek garaikurra jasoko dute. Hala ere, parte hartzaileek, irabazi edo ez, Aitor Hernández kirol kirol praktikoko eta entrenatzaile pertsonalak emandako masajea jaso ahal izango dute. Eta gainera kirol osagarrien zozketan parte hartuko dute.



Umeek ere kirolaz gozatu ahal izango dute martxoaren 23an, euren adinari egokitutako 3 zirkuitu ezberdin egiteko aukera izango baitute. 1999 eta 2004. urteen artean jaiotako umeek parte hartu ahal izango dute eta egunean bertan eman beharko dute izena, 10:00ak eta 11:15ak bitartean, plazan.

Ermuko Ostots Triatloi Kirol Klubak antolatutako III. Duatloia izango da aurten goa eta antolatzaileak oso pozik daude 3 urteko ibilbidea izan eta gero, Euskadi-

ko Txapelketa herrira ekarri ahal izanagatik. Hori dela-eta, buru-belarri daudelanean, eskuartean duten erronka honi behar den bezala erantzun ahal izateko. Antolakuntzan Ermuko Udalaren, Ermuko UKE-ren eta Euskadiko Triatloi Federazioaren babesa jaso dute.

Proba honen inguruko informazio jasotzeko, Ostots Kirol Klubaren webgunera jo daiteke. Izena ematea, berriz, www.triatloi.org webgunean egin beharko da.

Dorleta Vidal

Infreñu Taberna
Kardinal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

solozabal tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

CITROËN AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

SAGARDUI poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Ardo banatzailea:
Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

D. ARRAL 97 S.L.
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
arral@arral97.com
www.arral97.com

App madarikatua!

Bi aste daramatzat watsapa erabiltzen, 'beharrak' derrigortu nau. Hasieran, gaztetxoan beste kontu bat izango zelakoan ez nion kasurik egin, baina azkeneko hilabeteetan amesgaiztoak izan ditut aplikazio honen inguruan, nire burua bazterturik ikusi baitut. Nire ingurukoan artean watsapa ez neukan bakarria nintzen eta benetan, lagunik ez nuela sinesten hasia nintzen.

Watsapa ez baduzu, ingurukoak, gertu-gertukoak barne, zutaz ahazten dira: Bazkarien eta afa-rien antolakuntzatik at geratzen zara; berriak, onak zein txarrak, beranduegi heltzen zaizkizu, heltezokan, eta lagunekin fisikoki elkartu arren, watsapa elkarrizketa guztien ardatza bilakatu denez, lekuz kanpo geratzen zara.

Hilabete hauetan mugikorrean edo e-mailean jasotzen nituen

mezu bakarrak, iragarkiak ziren. Hau ikusita, nire bakardadeari amaiera ematea erabaki nuen eta App madarikatua jaitsi nuen. Mugikorrean ditudan kontaktu guztien argazkiak atera zirenean, hori poza! Aspaldi ikusi gabe nituen 'lagunen-kontaktuen' semeak, txakurrak, bikotekideak eta oinak ezagutu nituen (norbere oinaren argazki bat perfileko argazkitzat jartzea modan dago antza). Dibertigarria zirudien, ni praktikatzen ari nintzen sasi-miaketa kuxkuxero honen beste aurpegia ikusi arte: 'Ongi etorri' mezu inozo bat heldu zitzaidan, baina ni Zubiaurre erdian biluzik egongo banintz bezala sentitu nintzen.

Ez dago irtenbiderik! Kontaktatu batzuekin, kalean 'Epa' arrunt bat baino gehiago ez dena, elkarrizketa surrealista bilakatzen da. Kontrolpean sentitzen naiz sarri-



Alicia Lorenzo

tan, estu gero eta gehiagotan. Izan ere, jasotzen ditudan mezu guztiei erantzuna eman behar, ahalik eta azkarren gainera, bidualtzaileek badakitelako noiz konektatu naizen azkenekoz! Ondorioz, gutxi idazten baduzu, haserre zaudela eman dezake; asko idatziz gero, astun samarra zarela; ez baduzu azkar erantzuten, mesfidantza; watsap-taldea lagatzen baduzu, lagunekin haserretzeaz gain, berriro baztertua... Noiz bukatzen da elkarrizketa?

Eskerrak dozenaka emotikono dagoela, era askotakoak, mezuak errazten eta, batez ere, azkartzen dituztenak. Haiei esker, oraindik esnea berotzeko tartetxo bat ateratzen dut. Hori bai, mugikorra oso urrun ez dudala. ;-)

Mezu inozoa jaso nuen baina ni Zubiaurre erdian biluzik egongo banintz bezala sentitu nintzen



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ille-apaindegi bat
baino gehiago!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
*Geure Baserrian
Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua



optika
itZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

LANA


Mutila eskaintzen da baserriak garbitu edota gaixoak zaintzeko, etxean edo kanpoan. © 688812845. Juan.

Pertsona nagusiak eta umeak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak orduka egin ere. Astelehenetik ostiralera. © 646143287

Ziriako Ortiz de Zarate

Martxoaren 14an hil zen, 84 urte zituela

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu haren senide eta lagunel.



Euskal Birusa



Martxoaren 21ean
Zorionak Xabier zure urtebetetzean familia eta lagunen partez. Egun ona pasa!



Martxoaren 22an
Zorionak eta egun oso ona izan dezazula opa dizugu. Besarkada handi bat Mallabikoen partez!



Martxoaren 15ean
Zorionak zure aita eta amaren partez, Lucia. Asko maite zaitugu.



Martxoaren 27an
Zorionak Amaia! Zurekin bizitza guztia pasatzea espero dut. Asko maite zaitut!!!



Apirilaren 8an
Zorionak gure etxeko printzesari! 4 urte jada! Azkar hasten zabilta baina segi horrela. Musu potoloak!



Martxoaren 31n
Zorionak! Muxu asko etxekoen partez.



Martxoaren 28an
Zorionak tia etxeko guztien partez eta musu handi bat.



Apirilaren 1ean
Zorionak aita eta musu handi bat Jone, Aitzol eta amaren partez. Segi horrela!!!!



Martxoaren 29an
Zorionak Jone jada 10 urte, 10 musu Aitzol, aita eta amaren partez.

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
APIRILAREN 17a

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKANTZA BEREZIA
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

hamburguesería
TITANIK

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

MALLABIA**Korrika 4**

Korrika 4, 1985eko maiatzaren 31tik ekainaren 9ra egin zen, Atharratzetik Iruñara.

Justo Azagirre ikusi daiteke lekukoarekin eta berarekin Jose Antonio Bollegui, Rikardo Altube eta Jabier Arana.

**ERMUA****Korrika 7**

Eibartik zetorren Korrikaren lekukoa hartze-
ra joan zen Surdana Zubia,
beste lagun askoren arte-
an. 8. mailan zegoen
Surdana, eta neskarik
nagusiena zelako aukeratu
zuten irakasleek.

ENGLISH FUN!

INGELESEZKO
KANPAMENTUA
FORMIGALEN

8 eta 15
urte
bitarteko
umeentzat

Ekainaren 30etik uztailaren 13ra

Bizitza beste hizkuntza batean proba ezazu!

Akerlei
idiomas

Bizkaia etorbidea 5 - Ermua
943 176632 akerlei@akerlei.com

BERRIKUNTZAK

4-5 URTEKO UMEENTZAKO INGELESA:

Astearteetan, 18:00tik 19:00ra.

4-5 URTEKO UMEENTZAKO FRANTSESA:

Asteazkenetan, 17:15etik 18:15era.

'ONE TO ONE':

Zure neurrira egindako ikastaroak.

Animaliak edukitzeari buruzko Udal Ordenantza 2010eko abenduan sartu zen indarrean. Honen arabera, “bide eta plaza publikoetan, haurrentzako parkeetan, lorategietan, parkeetan eta, oro har, oinezkoak dabiltzan leku guztietan eta apaindurarako leku guztietan animalien gorozkiak ez jasotzea eta zaborrontzira edo hiri-hondakin solidoen edukiontzira ez botatzea” arau-hauste larria da eta 51eurotik 100 eurora bitarteko isunarekin zigortuta dago. Zer iruditzen zaizu txakurren jabe batzuen jarrera? Zer egin daiteke?



Oso gaizki iruditzen zait. Besteok beste gauza batzuegatik isunak ordaindu behar ditugu, ba txakurren jabeek ere isuna jaso beharko lukete. Eta isun gogorra, gainera. Herria kakaz beterik dago eta!

Bego Intxaurreaga, 47 urte



Txakur jabe bakoitza bere poltsatxoarekin joan beharko litzateke eta kaka jaso ezean, isuna jaso beharko luke. Durangon denbora dezente igarotzen dut eta bertan, txakurren kakak ikusten diren arren, ez daude Ermuan beste. Hemen ikaragarria da.

Ángel Portilla, 75 urte




Txarto iruditzen zait, baina egia esan ez ditut horrenbeste kaka ikusten. Udaletxeko parkean txakurrak solte egon ahal izango ziren, jabeek kakak jasota, noski. Nire lagunek txakurra daukate eta arduratsuak direla esango nuke.

Andoni Fernández, 28 urte



Albaitariarenetik gertu bizi naiz eta ikaragarria da zenbat kaka dauden inguru horretan. Gainera, Hambrerutz doazen txakur guztiak ere hortik pasatzen dira. Isuna ipini beharko litzateke, diruak min ematen digulako, baina ez da erraza izango jabe guztien atzetik ibiltzea. Kontzientziazatzea da irtenbidea.

Susana Jiménez, 40 urte



ZINEA*6tik 8ra.**13tik 15era.**20tik 22ra.**27tik 29era.*

Zehaztu gabeko filmek.

Ermua Antzokian.

UMEENTZAKO ZINEA*Hilak 7.**Hilak 14.**Hilak 21.**Hilak 28.**17:00etan.*

Ermua Antzokian.

ZINE-KLUBA*Hilak 4.**Hilak 11.**Hilak 18.**Hilak 25.**20:30etan.*

Ermua Antzokian.

MUSIKA*Hilak 13:*

Erromeria: Emepebost taldea (Euskal Jaia).

19:00etan. Orbe

Kardinalaren plazan.

Hilak 19:

Konzertua: José Mercé.

22:15ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 15€

Hilak 27:

Kalejira:

Ermua kantuan.

12:30etan. Orbe

Kardinalaren plazatik.

ANTZERKIA*Hilak 12:*

'Republicados', Interior Teatroaren eskutik.

22:15ean. Ermua

Antzokian. Sarrera: 8€

Hilak 26:

'Muu21', Yllana taldearen eskutik. 22:15ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 10€

ERAKUSKETAK*Hilaren 8tik 21era:*

Mihise gainen filgranak: Ana Cobos.

Hilaren 22tik 28ra:

'Cosme Cortazar:

XX. urteurrena'.

Hilaren 29tik 12ra:

Margoak:

Josette Dacosta.

18:00etatik

20:00etara.

Lobiano Kultur Gunean.

DANTZA*Hilak 14:*

Euskal Jaia:

Euskal dantzak.

12:30etatik aurrera.

Orbe Kardinalaren

plazan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK*- Hilak 20:*

Udaberriko Jaia:

Haurrentzako parkea.

11:00etatik

13:00etara eta

17:00etatik

20:00etara.

Orbe Kardinalaren

plazan.

Patxi López

BERBALAGUNEKO IKASTAROAK*Pintxo sorkuntza eta gozogintza:*

Apirilaren 16 eta 23an,

19:00etan, Erretena

elkarte gastronomikoan.

Pintxo gozo, eginerraz

eta originalen lanketa.

Postre eta pastelen lan-

keta. Ogia egiteko tekni-

ka ere irakatsiko da.

Aurpegiko makillajea:

Apirilaren 11 eta 18an,

19:00etan, Lobianon.

Bakoitzari ondo doakion

makillajea erabakitzen

ikasteko oinarritzko

ikastaroa. Doan izan

arren materiala eraman

behar da etxetik.

Izen emateak ekintzaren

aurreko asteko astelehe-

nean jarriko dira mar-

txan: 639414205 tele-

fonora deitu edo idatzi

ermua_berba@aek.org


helbidera.

**Aste Santua dela-eta, martxoan ez da Ermua Kantuan egongo.**


URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Zerrailgintza
- * Brikolaia
- * Kit altzariak
- * Rielak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

ONTINDIA
HARATEGIA

Etxean egindako odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44
48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41




Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE

ermua.dendari.com

ermua
dendari




Autoa hartu gabe,
merezi dugun
ZENTRO KOMERTZIALA
behar dugun guztiarekin

**Ermua erdian, zentro komertzial
erraldoia betiko atentzioarekin**

Aparkalekuak ZINEMA Tabernak JATETXEAK Musika eskola BOTIKA
Liburutegia JOLAS PARKEAK Betiko irrifarrea HAURRESKOLA, ...
herrian dagoen guzti guztiarekin

KOMERTZIO ETA ZERBITZU GUZTIAK ESKURA

ermua.dendari.com



Ugaro
aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 hortz klinika
Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Implanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
 www.irale.com

Yoga eskola
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

Sanatana Dharma

San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia)

san pelayo
 clínica dental hortz klinika

Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hortz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berritu eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA

Cristina García Pérez

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Belar-denda eta dietetika

Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber

Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**Osasun gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 17 93 50
 edo 688 63 28 76 telefonora**